

Haurreskolak Partzuergoko Mahai Negoziatzailea

Hilaren 4an azken Mahai Negoziatzailea deitu eta bildu ostean, gaur ere berriz bildu gara 3 sindikatuok Haurreskolak Partzuergoko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariekin Eibarren. Eusko Jaurlaritzaren ordezkari bezala Olatz Garamendi, Administrazio eta Funtzionamendu Zuzendaria, eta aholkularia den Jon Agirre egon dira, hurrenez hurren. Abenduaren 4ko landu gabeko 3 proposamen eskasekin alderatuz gero, hauek izan dira gaur aurkeztu dizkiguten proposamenak:

✓ **Kudeaketa langileen Lan Eskaintza Publikoa.** Bi urtetan Administrari eta Teknikari lanpostu guztien deialdia egitea. Beste 4 arduradun lanpostu barne promozioaren bitartez beteko dira.

✓ **Hezitzaileen ordezkapenak.** Lehen egunetik gauzatuko dira, beharrezkoak eta praktikoak diren kasuetan (ume nahikorik ez badago, ez da ordezkapenik eskatuko).

✓ **Landa eremuko haurreskoletako familiei 8 orduko zerbitzua eskaintzea.** Honek suposatzen du haurreskola txikietan gutxienez hezitzaile eta erdi egotea.

✓ **Koordinaziorako liberazio orduak** irekita dauden gela kopuruaren arabera zehaztea eta koordinatzaile ordeak **koordinazio plusa** 15 egun natural jarraian egiten dituenean kobratzea.

✓ **Erretiroa erraztu**, errelebo kontratuarekin akordio batera heldu (Mahai Orokorrean bidea zabaltzen denean berraztertzea).

✓ **Ordezkoen araudiaren negoziatioaren amaiera.**

Honez gain Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, gure **partzuergoko lanak Hezkuntza Publikoan puntuatzeko aukerak** daudela eta horretan lanean daudela helarazi digu.

Beraz, STEILAS sindikatuak gaurko bileraren ostean egiten duen hausnarketa ondorengoa da:

Dagoeneko bada urte bat Hezkuntza Publikoaren defentsan mobilizazioetan murgildu ginela, eta Haurreskolak Partzuergoari eta Eusko Jaurlaritzari hainbat eta hainbat aldarrikapen egin dizkiegu denbora honetan. **Mobilizazio hauei esker, administrazioak jarrera aldaketa erakutsi du.** Gaurko bilerara Olatz Garamendi Hezkuntza Sailburu ordea bera etorri izana adibide garbia da.

Hala ere, beren proposamenean ikusi dezakezuen bezala, ez dira inondik inora agertzen **aldarrikapen garrantzitsuenak**, hala nola:

- x Haurreskolak Partzuergoko finantziaketaren berrikuspena **doakotasunaren** bidean.
- x Eskola-bidea sustatzea.
- x Hezkuntza sailaren kudeaketa zuzena.
- x Gure lanak Delegaritzan meritatu ahal izatea. (Ikusteke)
- x Eroste-ahalmenaren berreskuratzea, bajak ez zigortzea.
- x Hezitzaileen behin behinekotasuna jaisteko neurriak hartzea (LEPa..).
- x ...

Izan ere, gaurko proposamena, berriz ere, **apenas zehaztapenik gabekoa eta gainazalekoa** da.

Honegatik guztiagatik, egoerak beste biderik hartu ezean, urtarriletik aurrera mobilizazioekin jarraitu beharrean egongo gara.

Momentuz, **urtarrilaren 16an berriz bilduko gara** hurrengo Mahai Negoziatzailean. Bilera horretarako nondik norakoak ere jakinaraziko dizkizuegu.

Eusko Jaurlaritza eta Haurreskola Partzuergoaren jarrera aldaketa guztion mobilizazioei esker gauzatu da. Izugarri eskertzen dizuegu egindako lana, esfortzua eta laguntza guztia. Aurrera egitera animatzen zaituztegu, beraz hasitako bidean.

GUZTIOK BATERA LORTUKO DUGU!!!!

